6208

AGINDUA, 2008ko uztailaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan erakunde laguntzaile gisa jokatzeko baimen-eskaria ebazten duena.

2008ko uztailaren 4an, José Javier Lasa Madina jaunak (NAN: 15372148-Y) Euskadiko Kutxa Kreditu Kooperatibaren izenean eta ordez (IFZ: F20022109) baimena eskatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan erakunde laguntzaile gisa jokatzeko.

Aplikatu beharreko arautegiarekin bat etorrita, Euskadiko Kutxa Kreditu Kooperatibak eskariarekin batera honako hauek aurkezten ditu: erakundeak egingo lituzkeen kobraketak zentralizatuko lituzkeen bulegoaren helbide eta banku-gakoa. Aldi berean, bi solaskide izendatzen ditu, diru-bilketaren kudeaketan eman beharreko laguntzari buruz hitz egiteko.

Zerrenda bat ere aurkeztu du, hain zuzen, erakundeak honako zerbitzu hauek emateko erabiliko lituzke bulegoena: lankidetza-zerbitzua; Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundien ziurtagiriak, zerga guztiak ordainduta edukitzeari buruz dihardutenak; berariazko adierazpena, honako lege-xedapen honetan jasotako baldintzak betetzen direla ziurtatzen duena: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan lankidetza-zerbitzua arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Aginduaren 9. artikulua; adierazpen horretan ziurtatzen da, orobat, agindu horretan ezarrita bezala lankidetzan jarduteko arazorik ez dagoela.

Aztertu egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan lankidetza-zerbitzua arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Agindua, eta kontuan harturik onuragarria dela eskatzaileak diru-bilketaren arloan egin dezakeen ekarpena, erakunde eskatzaileak betetzen ditu lankidetzan jarduteko bete beharreko baldintzak. Hori dela eta, egintza honen bidez, horretarako baimena ematen zaio erakunde horri.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezarri zituen otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuak esleitutako ahalmenak erabiliz, honako hau

EBATZI DU:

Euskadiko Kutxa Kreditu Kooperatibari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan erakunde laguntzaile gisa jokatzeko.

6208

ORDEN de 30 de julio de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que resuelve sobre solicitud de autorización para actuar como entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco.

D. José Javier Lasa Madina, DNI 15372148-Y, presento en nombre y representación de Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito, CIF F20022109, el día 4 de julio de 2008, solicitud de autorización para actuar como entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco.

Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito, de acuerdo con la normativa de aplicación, aporta, con la solicitud, dirección y clave bancaria de la oficina en la que centralizarían los cobros realizados por la entidad y designa dos interlocutores con los que tratar todo lo referente a la colaboración en la gestión recaudatoria.

Asimismo aporta relación de oficinas con las que la entidad prestaría el servicio de colaboración, certificaciones de la Tesorería General de la Seguridad Social y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa de encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, así como declaración expresa de cumplir los requisitos establecidos en el artículo 9 de la Orden de 11 de abril de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, reguladora del servicio de colaboración en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco, y de estar en disposición de prestar el servicio de colaboración en las condiciones establecidas en la misma.

Examinada la Orden de 11 de abril de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, reguladora del servicio de colaboración en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco y teniendo en cuenta que la contribución del solicitante al servicio de colaboración es positiva para la recaudación, resulta que el mismo cumple los requisitos para actuar como entidad colaboradora, por lo que procede autorizar a la misma por medio del presente acto.

En su virtud, la Consejera de Hacienda y Administración Pública en uso de la competencia que tiene atribuida por Decreto 42/2006, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública,

DISPONE:

Autorizar a Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito para actuar como entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du. Haren kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke egintza hau eman duen organoari; horretarako epea hilabetekoa izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan aurreikusitakoari jarraituz. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 30a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La presente Orden agota la vía administrativa. Contra ella cabe interponer potestativamente recurso de reposición ante el órgano que dicta el presente acto en el plazo de un mes, de acuerdo con lo previsto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o bien recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, contado desde el día siguiente de la publicación, conforme a lo dispuesto en el artículo 10.1.a) en relación con el 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de julio de 2008.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.